

BERRI OROKORRAK

2019ko otsailaren 8an 19. zenbakia



Euskaraz Bizi!!!!

DEKALOGOIA: 10 AHOLKU EUSKARAZ.

Haurrak euskaraz hazteko dekalogoaren hiru gomendio eman genituen aurreko astean. Goazen bada, hurrengo hirurak aipatzera:

Etxean...

4. Haurrak lotara doazen unea magikoa izan daiteke. Zabaldu irudimenaren atea ipuinekin edo lotarako kantuek gordetzen duten poesiarekin. Handitzen direnean, hurbildu komikien mundura, irakurzaletasunerako zubia izan daitezke.

5. Izan eredu zure seme-alabentzat eguneroko errutinetan eta euskararekiko interesa eta maitasuna adierazi.

Etzetik kanpo...

6. Aukeratu euskarazko eskaintza aisialdiko jardueretan. Haurrek eskolaz kanpoko jarduera askotan parte hartzen dute: kirola, musika, dantza, eskulanak, antzerkia... Aisialdia tresna ezin hobea da ikastolan eskuratutako gaitasun linguistikoak garatzeko eta, bide batez, modu informaloagoak bereganatzeko.



GURAS.O.S.ek dei egiten dizu, otsailaren 10ean, igandez, eguerdiko 12:00etan, Lasarteko MANUEL LEKUONA zine aretoan egingo den bideo-proiektzioan parte hartzera.

Ekitaldiaren garrantziaz jabetuta, aretoa betetzera animatzen zaitu! Izan guraso, haur, nerabe, gazte konprometitua!!!! Zatoz, GURAS.O.Sek Udarregi ikastolan grabatutako bideo-proiektziara!

Ekimen eta ekintza ugari dira GURAS.O.Sek osasunaren eta adostasunaren alde antolatutakoak eta bultzatutakoak.

Oraingo honetan, dei zabala egiten digu eta erronka ederra proposatzen digu: **BETE DEZAGUN MANUEL LEKUONA ARETOA!!!!!! EZ HUTSIK EGIN!**



adostasunari
La Gestión de los Residuos, es cosa de tod@s,

Foto colectiva / 23F manifestaziora deitzen
Presentación pública video / IKUSGARRIA!
Azken berriak: haremos público el contrato de la incineradora

Otsailak 10 Febrero 12:00h
MANUEL LEKUONA AUDITORIOA
(Lasarte-Oria)

gurasos
hitzartu

1.-Bazkideen artean zozketa.

Bazkideen artean Argia aldizkariko 4 ale berezi zozketatuko direla jakinarazi nahi dizuegu. Datorren asteko buletinean familia irabazleen izenak jakinaraziko dira. Zorte on!

OHARRAK ETAPAKA



HE

Ez dago berririk.



HH

Ez dago berririk.



LH

1.-Material-kobrantza.

Jakinarazi nahi dizuegu 2018/19 ikasturteko Lehen-Hezkuntzako eskola-materialaren kostua **35,55 eurokoa** dela. Kopuru hori, hileko **kuotarekin batera** kontu korrante bidez kobratuko zaizue otsailaren 16an. Inork **bi epetan** ordaindu nahiko balu, **dei** dezala idazkaritzara lehenbailehen (Tel.: 943361216).

2.-LH 1eko ikasleen irteera.

Datorren **ostegunean**, otsailak 14, LH 1eko ikasleek irteera egingo dute **Mendukilo kobazulora**. Kobazuloa ikusteaz gain, tailerrak egingo dituzte.

3.-LH 3ko ikasleen irteera.

Asteazkenean, otsailak 13, LH 3ko ikasleek Tolosara egingo dute egun osoko irteera eta bertan **Topik museoa** bisitatuko dute.



DBH

Datorren asteazkenean, hilak 13, 9:20tik 13:00etara, DBH 2koak Zubietako Lanbide Eskolara joango dira. Energiaren inguruan dituzten proiektuak bertatik bertara ikusteko aukera izatea da helburua.